

Gipuzkoako burgesiaren jarrera eta interesak mugen lekualdeten auzian: XIX. mendeko lehen erdia

URKO GARMENDIA

Laburpena

Gipuzkoako burgesiak probintziaren gaineko kontrol ekonomikoa lortzeak, XIX. mendearen lehen erdian zehar, aldaketa oso garrantzitsuak eragin zituen. Bost hamarkada horietan zehar emandako tirabiren azalpenaren bidez, urteekin indartzen joan zen klase sozial berriaren boteretzak, hartu zuen forma konkretua ezagutzea ahalbidetzen dugu, defenditzen zituen interes ekonomikoen mesedetara.

Hitz gakoak: Burgesia, Antzinako Erregimena, Gipuzkoa, Donostia, gatazka, merkataritza

Sarrera

XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, Cadizko Portua izan zen Ameriketako kolonien eta Espainia penintsularraren arteko konexioaren puntu zentrala. Gipuzkoak, bere lurraldean zituen baliabideetat jakitun, Donostiako Portua ezarri nahi zuen merkatal lan horiek burutzeko hiri gisa, horrekin batera aduanen lekualdaketa ere bultzatu nahi zutelarik.

Helburu horren alde, pentsamendu liberala zuten hiritarrak kokatzen ziren, Donostian edo inguruko herrietan bizitzen zirenak. Haien aurka, foruen defentsa zorrotza egiten zutenak zeuden; eta barnealdeko herrietan bizi ziren hauek, egoera politiko eta ekonomikoa mantentzearen alde lerratzen zirenak.

Bi aktore politiko hauen artean, aurretik zegoen gatazka orokorrak, Gipuzkoan nagusiki aduanen lekualdaketen auzian hartu zuen forma. Honela, lehia politiko gogor bat martxan jarri eta probintziaren baitan existitzen ziren interes ekonomiko ezberdinak mahaigaineratuz.

Foruak eta garapen politiko liberalaren lehen pausuak

XVIII. mendeko bigarren erdian zehar, merkataritza askea ahalbidetzen zuten akordioak sinatu izan ziren, eta hauek modu egokian esplota zedin, Amerikarekin komertzioan ibiltzeko ezarri nahi zen Donostiako Portua. Baina nahi horrek errealitatearekin talka egiten zuen,

foruak indarrean baitzeuden eta hauek mugatzen baitzuten edozein merkatal harreman. Foruen existentziari, herrialdeen arteko gatazka armatu zein ekonomikoak gehitzen badizkiogu, uler daiteke Gipuzkoako burgesiak nahi zuen bezela garatu ezin izanaren arrazoa, etengabe traba nabarmenen aurrean aurkitzen baitziren.¹

Ezintasun horren adibide nabariena Independentzia Gerra litzateke, 1808. eta 1814. urteen artean luzatu zena. Testuinguru horretan sistema liberal bat ezartzeko saiakera eman zen 1812. urteko Cadizko Konstituzioaren bitartez, baina indar absolutisten garaipenarekin, saiakera hori ezeztatzeaz gain, ideia horren alde lerratu izan zirenak, erreprimituak izan ziren. Hurrengo hitzetan antzeman dezakegu bizitako errepresio hori: *Como prueba de ello podemos decir que la Junta General de Guipúzcoa declaró inelegibles a los diputados que habían huido por causa de la llegada de las tropas del duque de Angulema y ordenó a los ayuntamientos que investigaran a los sospechosos y requisasen los libros y folletos imbuidos por las ideas liberales, comenzando por supuesto por la propia Constitución*². Bi bandoen arteko indar korrelazioa absolutisten alde zegoela nabarmena zen, eta garatzen zihoan burgesia liberal berri hori indar absolutisten egituretara eskakizunak egitera mugatu behar zen, ezinezkoa baitzuen momentu horretan haiek ekoiztutako legedi bat jartzea martxan.

1820. urteko gobernu liberalaren ezarpenarekin batera, Gipuzkoako burgesiak aukera paregabea ikusi zuen bere garapen ekonomikorako. Garapen horretarako ezinbestekoa zen aduanen lekualdaketa bat ematea, eta horregatik eskatu zioten gobernu zentralari barnealdetik kostaldera mugitzea aduanak. Gobernuak Donostialdeako merkatarien eskaera hori onartu eta 1821. urteko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarri zuen aldaketa hori. Baina absolutistek berriz botere gubernamentalak lortzean, aduanak barnealdera mugiarazi zituzten, eta ezin izan zuten aurretik nahi zuten bezala esplotatu merkatariek aukera hura³.

Gipuzkoako merkatariek, ez ziren besoak uztarturik gelditu, eta hobekuntza partzialen alde borrokatzen jarraitu zuten. 1828. urtean, Bizkaiako merkataririk liberekin batera lortu zuten Bilbo eta Donostiako Portuak Amerikako koloniek merkataritzan aritzeko baimena lortzea, denboran luzez borrokatzen zeramaten eskaera. Horrekin ogasunak zituen arazoei aurre egin ahal zion Estatuak, eta horrez gain, bi hirietako merkatarien eskaera konkretu hori asetzen zen, hauen garapen ekonomikoa ahalbidetuko zuena. Baina Amerikan zituen kolonien galerarekin aukera merkantil horren bidezko irabaziak ez ziren iraganean bezain handiak izango. Hala ere, ongiatorria izan zen merkataririk hauen artean, baina foruzaleen artean polemika handia sortu zuen neurriak, kolokan jartzen baitziren foruak.⁴

Blokeen arteko talken areagotzea eta lehia militarra

Aurretik existitzen ziren liberalen eta foruzaleen arteko tirabira probintzialak areagotzen joan ziren. Foruak eta politika liberalak bateraezinak zirela ikusita, lehiak forma berri bat hartu zuen. Burgesia berri horren beharrak asetzeko Espainia penintsularreko eta beste

¹ (Rubio Pobes, 2002)

² (Larrinaga, 2005)

³ (Aragón, 2013)

⁴ (Larrinaga, 2005)

koloniekiko harreman komertziala izatea ezinbestekoa zen. Aduanen lekualdaketa eta Donostiako Portuaren ezarpena Amerikarekin merkataritzan aritzeko jarraitzen zuten izaten burgesia liberalaren bi aldarrikapen nagusiak. Horretarako Gipuzkoako instituzio ezberdinetan programa horren defentsa egiten zuten, *Memoria Justificativa de lo que tiene espuesto y pedido la Ciudad de San Sebastián para el fomento de la industria y comercio de Guipúzcoa* idatzian ikusi dezakegun bezala. Idatzi hau 1832. urtean aurkeztu zen, burgesia liberalaren aldarrikapenen arrazoiak azaltzeko; horretaz gain, bi talde politikoaren arteko arrakala handitu zen, hurrengo urtean, Lehenengo Gerra Karlistaren atarian, eztanda egin zuena.^{5 6}

Gerraren hasierak, momentu horretara arte lerratuta zeuden bi bloke politiko eta ekonomikoak bloke militar ezberdinetan lerratuta eragin zuten, honek dituen eragin guztiekin. Lurraldearen gaineko kontrolaren borroka honek, ekonomia guztiz moldatzea ekarri zuen, gerra ekonomia bat sortuz. Bando bakoitzak zituen baliabide ekonomikoek, gerra irabaztera bideratu zuten gizarte absolutista mantentzeko helburuarekin, Carlosen oinordekotzaren zilegitasuna defendatuz eta liberalek, gizarte absolutistarekin bukatzeko eta gizarte liberala eraikitzeko, Isabel II.aren ondorengotza defendatuz. Gerra bitartean aduanak berriz kostaldera lekualdatu ziren juridikoki, baina gerra egoeraren ondorioz, ezin izan zen praktikan jarri. Sei urteko gatazka luzearen ostean, bake akordioa sinatu zuten Bergaran⁷, Isabel II.aren bandoak Espainiar Estatuako kontrola lortu zuelarik, liberalen laguntzari esker, eta garai historiko baten bukaera suposatuz, Espainiar monarkia absolutistarena.⁸

Aduanen lekualdaketa eta liberalen garaipen definitiboa

Gerra bukaerako bake akordioan, foruen mantentzea adostu zen. Urte luzez borrokatzen zeramaten honek, aduanen lekualdaketa suspentsioa eragin zuen. Ondorioz, isabelinoak auzi horri konponbide bat bileratzea behartuta ikusi ziren, arazoak ekiditzeko. Gobernu liberal berriek, penintsula barneko merkataritzarako baldintza hobekak eskaini ziren, baina honek ez zituen Donostialdeko merkatarien espektatibak betetzen, tinko mantendu ziren aduanen lekualdaketa aldeko borrokan.⁹

Bi urteetako aduanen mantentzearen ostean, 1841. urtean kostaldera mugitu ziren definitiboki aduanak eta horren bidez probintziako, eta bereziki, Donostialdeko merkatarien garapen ekonomikoa ahalbidetu zuen, hurrengo hitzetan ikusten den bezala: *Espartero decidió el desplazamiento de las aduanas, de suerte que, además de satisfacer a los comerciantes de San Sebastián, se dio un paso decisivo en la unificación del mercado nacional. De esta manera se abrían nuevas posibilidades a los productores guipuzcoanos,*

⁵ (Larrinaga, 2003)

⁶ (Gómez Piñeiro & Sáez García, 1999)

⁷ Bergarako besarkada: I. Gerra Karlistari bukaera emateko, isabelinoek (liberalak) eta karlistek (absolutistak) lortutako akordioa, zaldien gainean besarkada baten bitartez eszenifikatu zena, Bergarako herrian.

⁸(Larrinaga, 2003)

⁹ (Aragón, 2013)

*que ahora podrían vender sus productos en el resto de España sin tener que pagar derechos aduaneros.*¹⁰

Aurreko hamarkadekin alderatuta, bake sozialaren testuinguru batean, haien negozioak garatzeko aukera izan zuten merkatarik hauek. Horregatik inoizko garapenik ekonomiko handiena lortu zuen probintziak bere osotasunean, jarduera ekonomiko berrien sorrerarekin batera.¹¹

Ondorioak

Merkataritzaren bitartez bere botere ekonomikoa lortzen joan zen burgesia, nahiz eta Gipuzkoako ezaugarri konkretuetara moldatu izan zen bere interesak defendatzeko. Ez zen Gipuzkoako burgesiari eragiten zion aspektu hutsa borroka hura, alegia. Hego Euskal Herriko beste lurraldeetan ere indarrean zeuden foruak, eta Espainiar Estatu osoko botere egiturek ezartzen zituzten legedien ganean beren borrokaldia planifikatzea eragin zien, betiere Antzinako Erregimenarekin bukatzeko eta gizarte liberal berria eraikitzeko helburuari jarraiki.

Bibliografia

-Aragón, Á. (2013). Discrepancias en el seno de la burguesía guipuzcoana en torno a la libertad de comercio y el traslado de aduanas durante los siglos XVIII y XIX. In *Hispania-Revista Española de Historia* (pp. 761-778).

-Gómez Piñeiro, J., & Sáez García, J. (1999). *Geografía e historia de Donostia-San Sebastián*. San Sebastián: Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urdaneta." (pp. 128-129)

-Larrinaga, C. (2003). El comercio marítimo guipuzcoano entre 1800 y 1914. *Itsas Memoria. Revista De Estudios Marítimos Del País Vasco*, 4, (pp. 397-398).

-Larrinaga, C. (2005). Comercio con América y traslado de aduanas. El nacimiento del liberalismo económico en Guipúzcoa en la primera mitad del siglo XIX. In *Anales de Historia Contemporánea*. Murcia: Universidad de Murcia. (pp. 323-344)

-Rubio Pobes, C. (2002). *Liberalismo y fuerismo en el País Vasco (1808-1876)*. Vitoria: Fundación Sancho El Sabio. (pp. 12-14)

¹⁰ (Larrinaga, 2005)

¹¹ (Larrinaga, 2005)

